

Erorien monumentuaren eraisketa eskatuko dute berriz ere elkarte memorialistek

EUSKALERRIA IRRATIA :: 07/10/2025

Azaroaren 8an kalera irtetera dei egin dute, PSN, EH Bildu eta Geroa Baik “ezarritako arrabolari erantzuteko”. Frankismoaren biktimak gutxietsiak sentitzen dira Iruñeko Udal Gobernuaren partetik.

“Manifestazioa deitzen dugu, guk egia, justizia eta erreparazioa 50urtez itxaroten diogun bitartean, frankistek Iruñean jarraitzen dutelako beren gurutzada hildakoen omenezko hiri monumenturik handiena izaten” azaldu du prentsaurrekoan Koldo Amatriak, “PSN, EH Bildu eta Geroa Baik osatzen duten hirukoak ez du monumentua eraitsi nahi eta filigrana politiko eta juridikoen bitarte, gure bizkar, gure iritzia kontutan hartu gabe aurrera jarraitzen ari dira”. Zentzu horretan, azken egunotako erabaki eta urratsak salatu dituzte elkarte memorialistek, “Beren arrabol politikoa modu tranpatian aplikatzen dute eremu guztietan. Nafarroako Parlamentua, Iruñeko Udala, Bianako Printzearen erakundea eta memoria institutua erabiltzen dute euren koherentziazko legeak, arau aldaketa eta txostenak ateratzeko”.

Biktima elkarteak mespretxatuta sentitzen dira, oraindik ere delako haien ahotsa eta iritzia entzun gaiaren inguruan. Honen harira, urriaren 16an Erorien monumentuan ezarriko den memoria gunearen proiektua diseinatzeko eratutako aditu batzordearen osaketa ez gardena eta interesatua salatu dute.

Manifestazioa, azaroaren 8an, larunbata, Erorien monumentutik abiatuko da arratsaldeko seietan eta Iruñeko Udaletxe plazan amaituko da.

<https://eh.lahaine.org/erorien-monumentuaren-eraisketa-eskatuko-dute-berriz-ere>